



CLARETAR IKASTETXEEN IDEARIOA

Aurkibidea

- * SARRERA

- * KAPITULUA: EBANJELIZAZIOA HEZKUNTZAN
 - Gure claretar nortasuna
 - Claretar misioa, lan konpartitua
 - Misio hezitzailea, familiekin konpartituta
 - Misiorako formazioa

- * II. KAPITULUA: CLARETAR ZENTROAREN HELBURUAK
 - Pertsonaren formazio integrala, Ebanjelioaren arabera eta Clareten estiloan
 - Aukera metodologikoak eta pedagogikoak

- * III. KAPITULUA: ELKARTE HEZITZAILEAREN ANTOLAKETA
 - Kideak eta Elkarte Hezitzailearekin konpromisoak
 - Zentroaren antolaketa estiloa.

- * IV. KAPITULUA: IDEARIOAREN BALIOA ETA EBALUAZIOA



CLARETAR IKASTETXEAREN IDEARIOA

SARRERA

Entitate Titularraren eskumena eta eskubidea, Hezkuntza Idearioa egiteko eta gizarteari eskaintzeko

1. Eskuarlean duzun Ideario hau Claretar Familiako Kongregazioen misio apostolikoaren zehaztasun legitimo gisa sortu da, ideario hau ezarriko duten eskolen entitate titularra baita.
2. Ikastetxe katolikoa "jakituria pedagogikoaren patrimonioan errotuta dago, hezkuntzaren balorea baieztatzea ahalbidetzen duena, pertsonaren heldutasunean laguntzeko gaitasuna duen indarra baita, federa hurbilduko baitu eta gaur egungo gizarte konplexuko erronkei aurre egingo baitie". (Hezkuntza Katolikorako Kongregazioa. "Pertsona kotsakratuak eta horien misioa eskolan". Hausnarketak eta orientabideak. 30. Erroma 2002.X.28).
3. Claretar misioak hezkuntzan berezko proposamena eskaini nahi dio gizarteari, proiektu ebanjelizatzailearekin bat eginik, gainerako hezkuntza proposamenekin autonomia izanik, eta Eliza Katolikoaren zentroekin elkarlanean arituz.
4. Claretar ikastetxeak, kristau hezkuntza zentroa denez, interes orokorreko helburua du gizartearentzat (Fundazioen Legea 1994), eta helburu ebanjelizatzailea Ideario honetan islatzen da, Zentroak hezkuntza proiektuan erantsia (LOPEG 1995, LOCE 2002).

I. KAPITULUA: EBANJELIZAZIOA HEZKUNTZAN

Gure Claretar nortasuna

Elizaren ordezkariak. Claretar Familia. Titulartasuna

5. Claretar Familia Aita Jainkoak elkarte apostolikora deitu gaituen emakumezkoak eta gizonezkoak gara, eta Elizaren ordezkariak gara munduan Ebanjelioa ezagutzera emateko. San Antonio M^o Claret, M^o Antonia París eta Lluís Pujol sortzaileen espirituaren jarraitzaileak gara, Claretar misioa betetzen dugu, eta Entitate Titularra garenez, geure gain hartzen dugu sortzaileek proposatutako ebanjelizaziorako eredu gure hezkuntza zentroetan bermatzeko eginkizun berezia.

Kulturaren ebanjelizazioa

6. Gure lan hezitzailearen bidez kultura ebanjelizatzearen erronka geure gain hartzen dugu. Jesusen Berriona ematen dugu ezagutzera, gure Europaren testuinguruaren ikuspegitik eta gure ezaugarri bereizgarrien konplexutasunaren ikuspegitik.



Sinesten dugu Jesukristorenganako fedeak, dei eta erantzun pertsonaltzat hartuta, formazio integral honen arlo guztiei ematen diela zentzua, horiek ordenan jarri eta osorik bete. Horrela, bada, Jesukristo, Ama Birjina eta historiako sinesmendun handiak -batez ere gure fundatzaileak, Bibliarekin eta Elizaren doktrinarekin batera, errealitatea kritikoki interpretatzeko eta aldatzeko inspirazio iturri eta lanabes dira guretzat, beti ere tolerantzia eta pluraltasuna kontuan hartuta. Hezkuntza lana, gurean, kristau humanismoa eta Giza Eskubideak elkar hartuta egiten dugu, beti ere gure ikasleen formazio integrala lortzeko helburuarekin. Nazaretoko Jesusenganako fedea ezagutzera eman nahi dugu, pertsona izateko abenturari koherentzia eta aukerak ematen dizkion indar alternatibo gisa.

Lehentasun ebanjelizatzaileak

7. Claretar familiak -errealitatearen bere azterketa egin ondoren- bere gain hartzen du Elizak eta gizarteak hezkuntzari planteatzen dizkioten erronkei aurre egitea. Eta, ondorioz, honako lehentasun ebanjelizatzaileak erabaki ditu eskolentzat:

7.1. Kristau fedean heztea, ikastetxeko bizitzaren eragile dinamizatzailetzat hartuta. Ebanjelioak -claretar ikastetxeak bizi nahi duen balore sistemaren inspirazio oinarri izanik bizitzeko modu jakin bat osatzen du, eta, beraz, gizakiaren arlo guztiei eragiten die; horrela, bada, claretar ikastetxeetan fedean hezteko modu baten alde egin dugu, ikastetxearen arlo guztiak hartuz bere baitan.

Hona hemen fede hezkuntzaren oinarriak:

- Gizakiaren eta munduaren ikuspegia osatzen duten balore eta jarrerak lantzea,
- Fedea eta kulturaren arteko harreman sakona,
- Jainkoaren esperientzia,
- Jesukristo, erreferentzi gisa,
- Fedearen adierazpen esplizituak,
- Mundua gizartiatzearen aldeko bokazioa eta konpromiso sendoa, Jainkoaren proiektuaren arabera.

7.2. Gure ikastetxeetako pertsonarik ahulenei laguntzen saiatzea, eta gure laguntza eskatzen dutenei edota gure hezkuntza elkartean sartu nahi dutenei ateak zabaltzea.

7.3. Familiari ere arreta eskaintzea. Familia ebanjelizazio eragilea da. Familiaren izateko modua eta testigantza funtsezkoa da pertsonaren hezkuntzarako: mundua ulertzeko modua, irudi pertsonala eta fedea familian lantzen ditu gizakiak.

Claretar ikastetxeek familia/eskola harremana sendotu nahi dute. Harreman hori areagotzeko honako ezaugarriak izan behar ditu: konfiantza, elkarlana, elkar ulertzea eta elkar ezagutzea.

7.4. Eragile ebanjelizatzaileei formazioa eta laguntza eraginkorra eskaintzea.



Entitate Titularrak hezkuntzan misio ebanjelizatzailean aritzen diren pertsonak bereziki zaintzen ditu; hau da, eragileak kontu handiz aukeratzen ditu, haien hasierako formazioa eta formazio iraunkorra zaintzen du, eta bide eraginkorrak ezartzen ditu misioa gogoz eta prestutasunez egin dezaten.

Claretar misioa, lan konpartitua

Hezitzaileek misio berean aritzeko konpromisoa dute: ikasleak

8. Gure misio hezitzailearen funtsa ikaslea da. Familia eta ikastetxea elkarrekin aritzen gara gure misioan, haurren eta gazteen garapeneren alde, eta formazio integrala osatzen duten arlo bakoitzaren alde (indibiduala, soziala eta transzedentea), Ebanjelioaren balore eta espirituaren arabera. Familiek eta hezitzaileok ardura handiz hartzen dugu geure gain seme-alaben eta ikasleen etorkizunaren aldeko konpromisoa, eta, halaber, jakin badakigu, ikasle bakoitzarekin lortzen dugun harremana ezinbesteko oinarria dela haien hezkuntzan.

Claretar hezitzailearen nortasuna

9. Claretar hezitzaile orok Ikastetxeko misio ebanjelizatzailea kristau bokazioaren gauzatze praktiko modura bizi du. Hezitzaileak egiten duen lanean, kultura abiapuntu hartuta ebanjelizazioaren alde ari da, eta bere eskumen profesionaletik, lan egiten du ikasleen garapen integralean ardura handiagoa izatearen alde. Elkarrekin hezitzaileko gainerako kideekin batera, dinamizazioan aktiboki hartzen du parte, eta bizitzaren eta hitzaren lekukotasuna aintzat hartuta, guztiak animatzen ditu (familiak, lankideak, ikasleak, e.a.) gogotsu lanean aritzeko kalitatean eta koherentzian hobekia izateko; hau da, Ikastetxeak dituen helburuen alde egiteko.

Hezitzaile erlijiosoek eta laikoek elkarrekin hartzen dute ikastetxearen misio eta gestio ardura

10. Gutako bakoitzak -norbere baloreen eta ezaugarrien arabera dugun onena eskaintzen diogu elkarrekin hezitzaileari, aniztasunean eta xehetasunetan aberatsagoa izan dadin. Ikastetxeko misioak bertako kudeaketa elkarrekin egitera bultzatzen gaitu, eta Ideario honek lortu nahi duen ildorantz orientatzera ere bai. Ikastetxeak bere gain hartzen dituen esparru guztietan, elkarrekin hartutako ardura dela-eta, baliabideak eta erabakiak gardentasunez konpartitzera behartuta gaude, eta, halaber, helburu horiek lortzeko prozesu komenigarriak bereiztera. Horrela betetzen dugu gure bokazioa, horrela eraikitzen dugu Jainkoaren Erreinua, eta horrela bizi dugu Elizaren batasuna, gure eguneroko lanean, misio hezitzaile claretarra betez.

Misio konpartituaren pedagogia

11. Misio konpartitua guztion kolaborazio positiboarekin dinamizatzen da, eta norbera den bezala eta eman dezakeena errespetatzean oinarritzen dugu: bokazio desberdinak daude, baina bat egiten dute misio hezitzailean, alde onak integratuz eta zailtasunak gaindituz. Misio horrek elkarrekin hezitzailea osatzen duten kideen artean kalitatezko harreman sarea osatzea eskatzen du; eta, era berean, berekin dakar hezkuntzan sortzen diren behar berriei elkarrekin erantzutea. Etengabeko formazioa behar dugu, gure gaitasunak indartzeko eta garatzeko.



Misio hezitzailea, familiekin konpartituta

Guztion lana: ikaslearen formazio integrala

12. Gizartearentzat eta Elizarentzat kristau ikastetxeak kalitatezko bitartekoak dira, hiritar eta kristau berriak formatzeko. Ardua horretaz jakitun, eta ebanjelioak eskaintzen duen pertsona eta gizarte ereduari leial izanez, claretar ikastetxeak bere egiten du misio hezitzailea: familiak eta hezitzaileek elkar hartuta egin beharrekoa. Izan ere, elkarrekin egin beharreko lana da bestelako gizarte bidezkoago, eta baketsuago eta Nazaretoko Jesusen proiektuarekin koherenteago izango den gizartea eraikitzeko ahaleginak.

Entitate Titularrak interes esplizitua du belaunaldi berrien formazio lana familiekin batera egiteko, ikasle bakoitzaren hezkuntza zehatzean Ikastetxea elementu eraginkorra eta eraldatzailea izan dadin.

Claretar hezkuntza estiloaren aldeko aukera

13. Familiak seme-alaben hezkuntza eredu hau aukeratzen duenean, badaki zein den Claretar Ikastetxearen Idearioa, eta horixe aukeratzen du ikasleen formazioan jardueren, ekimenen eta irizpideen printzipio gidari modura; bestetik, familiak partehartze aktiboa du partehartze organoetan eta eskola arloan antolatzen diren ekimenetan.

Misiorako formazioa

Oinarriak eta arduradunak

14. Gizarte osoa -eta bereziki hezkuntza behartuta dago gaur egun sortzen diren beharrei irtenbide egokia ematera. Etengabeko formazioa ezinbesteko tresna da gure misio ebanjelizatzaileak egitasuna, gaurkotasuna eta kalitatea izan dezan aldaketa kulturalak, soziologikoen, ekonomikoen, teknologikoen eta abarrek jartzen dizkiguten erronka berrien aurrean.

Entitate Titularra, hezitzaileak eta familiak ondo ezagutzen dituzte premia berri horiek; beraz, euren gain hartzen dute etengabeko hobekuntzak egiteko ardua, bai teknika eta bitartekoen alorrean, baita jarreretan eta estrategietan ere, belaunaldi berriei Ideario honen helburuen arabeko hezkuntza eman ahal izateko.

Helburuak

15. Claretar ikastetxean etengabeko formazioa helburu bikoitzarekin egiten da:

- Teknika, pedagogia eta antolakuntza hobetzeko.
- Idearioak berez dituen elementu horietan guztietan sakontzeko; izan ere, horiek ematen diote nortasuna eta zentzua Ikastetxearen eginkizun hezitzaileari eta ebanjelizatzaileari.



Metodologia

16. Entitate Titularrak eragileen etengabeko formazioa bermatzen du, eta horrela izan dadin ardura hartzen du. Horretarako:

- formazioan dituzten beharrak xehetasun handiz aztertzen ditu,
- helburuekin bideragarria eta egokia ote den egiaztatzen du, eta formazio jarduerak antolatzen ditu, gerora probetxugarria izan dadin eta, ondorioz, ezar dadin.
- eta formazio jarduerak antolatzen ditu, gerora probetxugarria izan dadin eta, ondorioz, ezar dadin

II. KAPITULUA: CLARETAR ZENTROAREN HELBURUAK

Oinarrizko premisak

17. Gure helburu hezitzaileak, Elizaren misio unibertsalaren arabera, honako uste sendoetan oinarritzen dira:

17.1. Jainkoak, bere maitasunaren doakotasunean, gizakia bere antzeko egin zuen: gure bizitzak behin betiko balorea eta duintasuna du.

17.2. Jesukristok, Jainko Aitaren Semeak, adierazi zigun Berarekin batera garela seme-alaba eta pertsona guztien anai-arreba.

17.3. Espiritu Santuak Jesukristori jarraitzeko adorea ematen digu, eta Ebanjelioan adierazten diren baloreak jakinarazten dizkigu. Hori da errealizazio pertsonala lortzeko bide egokia.

17.4. Jainkoak pertsona orori deitzen dio, historia eta gizarte konkretu honetan, misio jakin baterako, eta hori gogoz eta arduraz eginez gero, arlo guztietan asebetetzen laguntzen du.

17.5. Maria gure Amatzat, eta Jesukristori jarraitzeko Maistratzat dugu.

Pertsonaren formazio integrala, Ebanjelioaren arabera eta Clareten estiloan.

18. Premisa horien arabera, gizonezkoaren eta emakumezkoaren, eta gizartearen kristau ikuskerari dagozkion baloreetan hezten dugu.

18.1. Dimentsio transzendentearen baloreak.

• Bizitzaren eta historiaren erabateko zentzua aurkitu Jainko Aita, Seme eta Espiritu Santuan.

• Zoriontasunen gizarte berria, gaur egungo alternatiba historikoa.

• Kristau elkarteak, toki egokia fedea aurkitzeko, areagotzeko, lantzeko eta Elizan erabat sartzeko; hori baita kristau bizitzan elkarbizitza heldutasunean bizitzeko modua.

• Jainkoarekin bat egitea, kreazioaren, hurkoaren, otoitzaren eta Hitzaren bidez.

• Kristau bokazioa, Jesusi jarraitu eta Erreinuaren zerbitzuan lan egin.

• Gure fundatzaileen espiritu ebanjelizatzailea eta misiolaria, Jainkoaren ebanjelioa pertsona guztiengana helarazteko, eta, batez ere, urrunen daudenengana eta ahulenengana iritsi ahal izateko.

• Absolututasunera hurbiltzeko modu desberdinekiko errespetua eta haiekin elkarriketan aritzearen aldeko jarrera.



18.2. Dimentsio indibidualaren baloreak.

- Pertsona guztiok berez dugun askatasun pertsonala; egia bilatzeko bidean norbere buruaren jabe izateko kontzientzia morala eta nor bere erabakiak hartzeko autonomia sendotzen du.
- Bizitza eta osasuna maitatu, kreazio osoarenganako sentsibilitatea izan.
- Hausnarketa, bizitzaren beraren azterketa eta motibazioak, misterio pertsonalera zabaldu eta sakondu, haren historian eta haren etorkizunean.
- Afektibitatea, auto-estima, maitasuna eta adiskidetasuna eta sexualitatea, pertsonaren balore guztietan integratuta, komunikazio harremanetan eta pertsonen arteko elkarbizitzan.
- Borondatea, auto-diziplina, ahalegina, lanarenganako maitasuna, irmotasuna, hobetzeko grina.
- Jakituria, ezaguera, kultura. Tekniken eta lan intelektualerako ohituren jabe egin. Informazioaren hausnarketa kritikoa. Arlo guztietan formatzeko kezka: akademikoa, kulturala, erlijiosoa, morala, soziala...
- Espiritu ekintzailea, altruista, kritikoa eta konprometitua, sormen artistikoa.
- Zintzotasuna eta erantzukizuna, asertibitatea, betekizunak eta eskubideak ditugula jakitun izan, nor bere eta besteen duintasuna errespetatzearen alde lan egin, bitarteko demokratikoen bidez.

18.3. Dimentsio sozialaren baloreak.

- Gizaki guztien zentzu positiboa eta bizitzeko eskubidearen defentsa.
- Familia, maitasun elkarrekin eta pertsonen formazioa areagotzeko gune gisa, eta arlo guztietan funtsezko baloreak garatzen diren gune modura.
- Lagun hurkoa onartu eta errespetatu, ideologia, interes eta uste sendo guztien gainetik. Elkarrizketa, barkatzen jakitea, guztienganako maitasuna, baita etsaiarenganako ere; karitatea, miseriak eta errukitasuna.
- Bakea eta indarkeria eza, bai jarreraren pertsonalean, bai konpromiso sozialean ere.
- Ondasunen zentzu soziala eta gutxiago dutenekin edo ezer ez dutenekin konpartitzeko arduraren kontzientzia. Justizia eta elkartasuna behartuenganako, marjintuenganako eta baztertuenganako, batez ere beharrak dituzten herrienganako eta emigranteenganako.
- Konpromiso soziala eta partehartze arduratsua gizartearen egunerokotasunean, bai boluntario trukean ezer jaso gabe, bai laguntza desinteresatua; hau da, beti ere guztion onerako lan egin, norberaren interesen gainetik.
- Arraza, kultura, politika eta erlijio aniztasuna onartu, pertsonen onerako eta beren duintasunerako baloreetan; ausardia gure gizarte demokratiko honetan nor bere ideiak, uste sendoak eta baloreak aitortzeko, eta horiekin guztiarekin bizitzan aurrera egiteko.
- Natura errespetatu eta ingurumena zaindu.
- Tokiko elizetako egunerokotasunean parte hartu, baita beste eskolek, taldeek eta eliz erakundeek antolatutako ekimenetan ere.
- Nor bere herria maitatu eta haren alde lan egin, eta bertako kultura eta hizkuntzarekin konpromisoa izan.
- Europako herrialdeetara zabaldu, elkarrekin aberasgarriak izan daitezkeen loturak egin, eta hiritar arduratsuen eta solidarioaren kontzientzia berria mundu marko berrian.
- Aisialdiko eta kirola egiteko denbora erabili lagun arteko harremanetarako, bizikidetzarako, formazio sozialerako eta pertsonalerako.



• Pertsonen arteko harremanetan atsegina eta edukazio onekoa izan, hizkuntza zuzen erabili, txukuna izan eta gauzak ondo zaindu.

Aukera metodologikoak eta pedagogikoak

19. Lortu nahi den formazio integralak, prozesu hezitzailearen helburutzat hartuta, eta ikasleei irakatsi nahi dizkiegun baloreak kontuan hartuta, honako ezaugarriak ditu:

Hezkuntza, guztion lana

19.1. Lan hezitzailea eskola elkarteko eragile guztien eginkizuna da. Horregatik, eta oso garrantzitsuaenez, kide guztien arteko harreman sarea asko zaintzen dugu.

Ikaslearen protagonismoa

19.2. Ikaslea bera da bere hezkuntzaren protagonista nagusia eta egilea. Horregatik, guk ezartzen dugun metodologia ikaslearen ekimena, espiritu kritikoa, sormena eta jardura sustatzen du, eta ikaslearen motibazioa eta interesa pizten du.

Hezkuntza pertsonalizatua

19.3. Hezkuntzak ikasle bakoitzari egokitzea eragiten du, bere erritmora eta berezitasun pertsonaletara egokituta; halaber, ikasleari ahalegina eskatzen zaio bere ideien, baloreen eta bizitzaren sintesia egiteko. Harreman hurbil eta samurraren bitartez ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonalak indartzen ditugu. Metodologia aktiboa, tutoretza sistema eta laguntza pertsonala lantzen ditugu. Ikastetxeak, antolatzen dituen jardura guztien bidez, ikasleen bokazio dimentsioa eragin, piztu eta areagotu nahi du; horrela, munduan beteko duten lekua aurkitzen laguntzen zaie, eta, ondorioz, horren arabera jarrera izango dute.

Fedean hezi

19.4. Erreinuaren baloreak eta Jesukristorenganako fedea ikastetxe giroan hezten dira, baita claretar ikastetxearen berezko zenbait ekimenen bidez ere.

Kalitatezko hezkuntza akademikoa

19.5. Arreta handiz zaintzen dugu hezkuntza etapa bakoitzean irakasten diren edukien kalitatea, eta jakiteko gogoia eta grina oinarri akademiko sendoan islatzeko giroa proposa bultzatzen dugu.

Hezkuntza inkulturatua

19.6. Zentroaren testuinguru soziokulturala kontuan hartuta, bertako kultura, hizkuntza, ohiturak eta baloreak bultzatzen ditugu; gainerako kultura eta herrialdeetara zabaltzeko eta onartzeko jarrera daukagu, eta kultura guztiek dituzten Ebanjelio haziak areagotu egiten ditugu.



Errealitatea eraldatzen duen hezkuntza

19.7. Errealitatearen irakurketa eta azterketa abiapuntu hartuta, Ikastetxeak etorkizuneko hiritarra prestatzen du, aktiboki eta konpromisoz gizarteratzeko eta gizarte bidezkoagoa eraikitzeko. Talde lana, edozein dela modua, bultzatzen du, Ikastetxearen bizimoduan eta bere inguruan parte hartzen laguntzen du, eta lankidetzeta eta elkartasun ekimenetan lan egitera bultzatzen du.

Hezkuntza eguneratua

19.8. Ekimen berritzaileek hezkuntzan, hezitzaileen etengabeko formazioa dakar berarekin, ikasleak etorkizuneko erronkei aurre egiteko gaitzeak ere ahalegin sortzailea dakar, baita erabiltzen dugun pedagogiaren etengabeko ebaluazioa ere.

Eskola orduz kanpoko hezkuntza

19.9. Claretar ikastetxeak gainditu egiten ditu eskola orduak ezartzen duen muga. Eskola kurrikuluaren berezko jardueraz gain, eta proiektu pastoralak ezartzen dituen jardueraz gain, Ideario honetan proposatzen diren baloreak ere lantzen ditu, eskolaz kanpoko jardueren bitartez.

Ebaluatzen duen eta hobetzera bultzatzen duen hezkuntza

19.10. Ebaluazioa hezkuntzan, elkarte hezitzailearen etekina baieztatzen duen etengabeko prozesua dela ulertuta, etengabeko akuilu eta orientazioa da lan hezitzailearen hobekuntzan: kalitatean etengabeko hobekuntza indartu, zuzendu eta bidea hartzen du.

Haurra eta gaztea zoriontsua izan dadin

19.11. Hezteko moduak, etengabeko interesa eta motibazioa abiapuntu hartuta, eskola bizitzako etapa guztietan ikaslea zoriontsua izatea lortzen du.

III. KAPITULUA: ELKARTE HEZITZAILEAREN ANTOLAKETA

Kideak eta Elkarte Hezitzailearekin konpromisoak

Entitate Titularra

20. Entitate Titularra hezkuntza arloan aritzen den kongregazio claretar bakoitza da. Horrenbestez:

- Ondare pedagogikoa, misiolaria eta claretarra ematen du, horien guztien iraupena bermatzen du, hezkuntzan duen urteetako tradizioaren bidez.
- Ideario honetan azaltzen diren printzipioak ezartzen ditu, zuzenean edo ordezkarien bidez; horrela, ikastetxearen asmo ebanjelizatzaileak proiektu, jarduera eta harreman guztiak dinamizatzen ditu.



- Ikastetxearen kudeaketa ardura guztiak bere gain hartzen ditu gizartearen aurrean, botere publikoaren aurrean eta elkarte hezitzaile guztiaren aurrean.
- Idearioa ezagutzera ematen du, eta honako hauek sustatzen ditu: zentroaren jardura hezitzaile globala, bertako kide guztien kohesioa eta etengabeko hobekuntza, Ideario honek proposatzen dituenekin bat datozen arlo guztietan.
- Elkarte hezitzailea osatzen duten kide guztiak animatu eta laguntzen ditu, misio konpartituan kide aktiboak izan daitezen.
- Gaur egun eta etorkizunean claretar zentroa adierazgarri eraginkorra izan dadin arduratzen da, eta bere gain hartzen du eragile dinamizatzaileak hartzeko edota bertan daudenak sustatzeko ardura, Idearioaren helburuekin modu koherentean lan egin dezaten.
- Kideen arteko harremanak girotu egiten ditu, gizabanakoaren eta taldearen hazkuntza lagungarria baita.

Ikasleak

21. Ikasleak dira zentroaren jardura guztien funtsa.

- Aktiboki eta arduratsu parte hartzen dute beren ikaskuntza zereginetan, beren hezkuntzaren prozesuan eta agintzen zaizkien ardura guztietan.
- Ikastetxe claretarrak proposatzen dituen ebanjelio balore guztiak onartzen dituzte.
- Elkarri laguntzeko eta elkarrekin hobetzeko giro aproposa sor dadin lan egiten dute.

Irakasleak

22. Irakasleak kultura transmititzen duten hezitzaileak dira, Proiektu Hezitzailea lor dadin lan egin dute, zentroaren antolaketan aktiboki parte hartzen dute, eta eguneroko bizimoduaren bitartez Ideario honek proposatzen dituen baloreen lekukoak dira.

- Eragile aktiboak dira claretar ikastetxearen misio konpartituan.
- Elkarrekin kolaboratzeko, elkarren artean ondo konpontzeko eta elkar errespetatzeko giro aproposa sor dadin laguntzen dute.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua planifikatzen eta zuzentzen dute, eta ikasleak animatzen eta orientatzen dituzte beharrak dituztenean.
- Irizpideak bateratu egiten dituzte eta familiarekin harreman estuak izaten dituzte, ikasle/semelabaren prozesu hezitzailean beharrezko koherentzia lortzeko.
- Ikasleen formazio pertsonalaren arduradunak dira, Idearioaren baloreak aintzat hartuta zeregin hezitzailea aberasteko.

AZP

23. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala zentroaren funtzionamendu orokorrean balio handiko kolaboratzaileak dira, eta beren bizitzeko moduarekin ere zeregin hezitzailea betetzen dute.

- Idearioa onartzen dute, eta zentroaren misio konpartituan parte hartzen dute; hau da, harreman pertsonala eta lana eransten dute.
- Pertsonekin dituzten harremanen bidez, Zentroak bere Idearioan aipatzen dituen baloreak aditzera ematen dituzte.
- Zentroa ezin hobeto mantentzen dute, jardura hezitzailea egin ahal izateko.



- Beren formazio teknikoaz arduratzen dira, bai euskarri teknikoetan, bai kalitate kudeatzaileek jakinarazten dituen bestelako arloetan ere.

Familiak

24. Familiak dira beren seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak.

- Zentroaren Idearioa zein den badakite, baloratu egiten dute, onartu eta helburu horiek familian bertan konpartitzen saiatzen dira.
- Familiak ardura zuzena du seme-alaben hezkuntza akademikoan, eta ekintza hezitzaileetan laguntzen dute. Bestetik, Zentroko hezitzaileekin elkarrizketak izaten dituzte eta haiekin kolaboratzen dute.
- Guraso diren partetik, beren formazioaz ere arduratuta daudela ematen dute aditzera, eta seme-alaben misio hezitzailearekin zerikusia duten egintza hezitzaileetan parte hartzen dute.

Ikasle ohiak

25. Ikasle ohiak eskola elkartearen bizitzaren luzapena dira.

- Eliz elkarteetan, erakundeetan edo bestelako taldeetan antolatzen dira, ikastetxean proposatutako bizimodua garatzen jarraitzeko asmoz.
- Ikastetxeak antolatzen dituen egintza formatzaileetan eta topaketetan parte hartzen dute.
- Ikasleei begira antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dute.

Eskolaz kanpoko jardueretan aritzen diren eragileak

26. Eskolaz kanpoko jardueretan aritzen diren eragileak bestelako jarduera hezitzaileetan kolaboratzen dute, eta idearioaren irizpide bereberri eusten diote.

- Zentroaren idearioa zein den badakite, onartzen dute eta beren gain hartzen dute; ikasleekin aritzen diren zereginetan irizpide horien arabera aritzen dira.
- Familiekin eta hezitzaileekin batera lan egiten dute, eta, dagokionari, ikasleei buruzko edozein informazio garrantzitsu transmititzeaz arduratzen dira.

Zentroaren antolaketa estiloa.

Giroak duen garrantzia eta Entitate Titularraren inplikazioa

27. Entitate Titularrak jakin badaki edozein antolaketa hobeto gauzatzen dela hazkunde pertsonala eta taldearena bultzatzen duen giroa aproposa denean. Giro apropos hori ondo zaintzea guztion eginbeharra da, nahiz eta zenbait kideren misio berezia giroa animatzea izan. Beraz, Entitate Titularraren nahia da harreman hezitzaileen arloko baldintza onak erraztea, Idearioan biltzen diren baloreak aintzat hartuta hazkundera posible izan dadin.

Baloreak zehaztu eta transmititu

28. Idearioaren berezko baloreak Zentroko Proiektu Hezitzailean pentsatzen eta zehazten dira, baita azken hori garatzen duten dokumentuetan ere. Balore horiek eguneroko eginbeharretan



bizitzen dira, elkarte hezitzailearen giroan eta antolaketa agerian geratzen dira, eta ikasleek uneoro jasotzen dituzte.

Zentroaren antolaketa kultura

29. Elkarte hezitzaileko kide guztiak harreman giro aproposa eta antolaketa estilo jakin bat sortzen ahalegintzen dira, eta hori guztia aurrera eramaten da honakoetan:

- Claretar ikastetxean, ebanjelizazio gune eta hezkuntzaren eremu integratzailea baita testuinguru soziokulturalean.
- Ebanjelioaren muinean, bizitzaren erreferentzia etengabea baita.
- Misio konpartituan, elkarte hezitzailean.
- Familiaren inplikazio zuzenean, ikasleen hezkuntza integratzen.
- Ahulenenganako eta urrunen daudenenganako arduran.
- Proiektu hezitzailearen iraunaldian, bai eskola orduetan, bai eskolaz kanpoko orduetan ere.
- Ikasteko motibazioan, eta eskola kurrikuluma zorrotz eta behar bezala ezartzeko garaian.
- Eragileen etengabeko formazioan, hezkuntzan etengabeko eguneratzearen berma baita.
- Eguneroko elkarbizitzako sendotasunean eta esperientzia pertsonaletan

IV. KAPITULUA: IDEARIOAREN BALIOA ETA EBALUAZIOA

30. Ideario hau berezkoa dute claretar familiako zentro hezitzaile guztiek. Zentroaren egintza hezitzaileko behar-beharrezko erreferentzia puntu izango da. Ideario honek ideal bat adierazten du, eta abian jartzerakoan beharrezkoa da errealismoz aurrera egitea, beti ere egoera eta aukera desberdinak kontuan hartuta.

Idearioa, claretar familia osoaren proiektu hezitzaile, pedagogiko, kurrikular eta pastoralen erreferentzia marko globala

31. Ideario honek claretar ikastetxearen bizitza orientatzeko funtsezko oinarriak biltzen ditu, eta bestelako proiektuak eratzeko, zentroarentzat baliabide iturri da; esaterako, baliabide intelektual, moral, afektibo eta harremanetarako iturri da. Ideario hau abiapuntu hartuta, eta Entitate Titularraren ekimenen arabera, idearioa ezartzeko ildo nagusiak osatzen dira.

Zentroaren Proiektu Hezitzailea Idearioak gauzatzen duen lehendabiziko eginkizuna da ikastetxe guztientzat. Beraz, Idearioa bera eta gerora egiten den haren garapena zentroaren proiektuetan eta araudietan, Ideario honek lortu nahi duen gauzatze zehatzagoa da.

Idearioaren azterketa: claretar familian Idearioa aldatzeko eskumena duten organoak

32. Idearioa egiteko prozesuarekin koherente izateko, aldaketaren bat proposatzeko beharrezkoa izango da Goi Mailako Nagusiek berariaz horrela adieraztea, edota haien zeregin horretarako izendatutako norbaitek eskatzea. Aldatzeko proposamena batzorde horrek landuko du, baina alde aurretik azken idatzia egin duten zentroi galdetu beharko dio batzordeak; azkenik, Goi Mailako Nagusiek onartu beharko dute.



Ideario hau jatorri izanik sortu diren dokumentuak ebaluatzeko eta gaurkotzeko bideak

33. Ideario hau jatorri izanik sortu diren dokumentuak ebaluatzeko eta gaurkotzeko prozesua ikastetxe bakoitzaren araberakoa da.

Dena dela, Goi Mailako Nagusiek edota haiek izendatzen duten pertsonak edo batzordeak du honako eginbeharretarako eskumena: azken aldiz idatziko Idearioaren interpretazio legitimoa, gerora izan ditzakeen aldaketen interpretazio legitimoa, eta zuzen ezartzea zentro guztiek egiten dituzten garrantzi txikiagoko proiektuetan

Idearioaren egiaztapen praktikoa gure zentroetan

34. Ideario honek zenbait ebaluazio irizpide eratzen ditu, eta zentroen egunoroko bizimoduan gauzatzea bermatzen dute. Halaber, egoerak hala eskatzen duenean, berriz idatzi beharko dira gaur egungo testuinguru soziokulturalek eragiten dituzten erronkei egokituta. "2000ko Claretar Ikastetxeak" izeneko prozesuaren ondorioz erabaki ziren ebaluazio irizpideak dira:

1. Ideario hau zein den jakitea eta gauzatzea: zenbateraino dagoen errealitateari egokitua.
2. Misio Konpartitua egiaztatzea.
3. Lehenetasun ebanjelizatzaileak gauzatzea:
 - 3.1. Elkarre hezitzaileko eragileen fede bizipenaren garapena.
 - 3.2. Familiaren konpromisoa zentroaren lan hezitzailean.
 - 3.3. Ahulenganako lehenetasuneko ardura.
 - 3.4. Eragileen formazio maila (nortasuna, profesionala eta pedagogikoa).
4. Idearioaren helburuekin eta etorkizuneko proiektuekin bat etortzea eta haiek betetzea.